

NATURA, TEKNOLOGIA ETA ARTEA SORMENAREN KABIAN

Aurtengo edizioan, Camile Duhartek eta Luzia Pedregalek eskuratu dute beka. Ordea, arrazoi pertsonalengatik, Pedregalek bere egonaldia datorren urtera arte atzeratu behar izan du. Ondorioz, aurten artista bakarraren emaitza ezagutuko dugu: Camile Duharten *Babesleku: Visual Refuge*.

Sormenaren Kabia Beka Alkizako Udalak, Koldobika Jauregi artistaren gidaritzapean, eta herriko eragileekin elkarlanean, 2018an sortu zuen ekimena da. Haren helburua da artistentzat espazio bat eskaintzea, non naturagune paregabe batean esperientziak partekatu, hausnartu, sortu eta esperimentatu ahal izango duten.

Antolakuntzak honako epaimahaia osatu du 2025ean:

- Elena Cajaraville Ordoñana, artista bitxigilea eta Ur mara museoko zuzendaria.
- Txiki Agirre, *Keixeta*, margolari eta eskultorea.
- Zaloa Ipina Bidaurreazaga, artista plastikoa.

Hautaketa-batzordeak ondoko irizpideak hartu ditu kontuan proiektuak ebaluatzeko:

- Kalitatea eta sormena.
- Berrikuntza eta originaltasuna.
- Ibilbide artistikoa.
- Motibazioa eta konpromisoa.
- Bideragarritasuna, metodologia eta kronograma.
- Jasangarritasuna.
- Alkizako herriari egiten zaion ekarpena.

Proiektu guztiak aztertu odoren, epaimahaiak Luzia Pedregal eta Camile Duharten proiektuak aukeratu ditu.

Camile Duhart – Babesleku: Visual Refuge

Camile Duhart artista bisuala da eta bere lanak artea, teknologia eta natura uztartzen ditu ikus-entzunezko instalazio esperimentaletan. Alkizan gauzatu duen *Babesleku: Visual Refuge* proiektuan, eskultura biodegradagarri bat eta bideoarte bat dira, inguruko elementuekin sortutako mapping baten bidez: goroldioaren testurak, basoko soinuak, argiak... Artelan honek ikusgarria eta ikusezina konektatzen ditu, paisaiaren zentzumen-esperientzia bat sortuz. Sorkuntza-lan poetiko eta ekologikoa, gizatiarraren eta ez-gizatiarraren arteko zubi.



Camile Duhart Alkizako basoetan lanean
Argazkia: Unai Sorarrain

Camile Duhart pasa den udaran Alkizan izan da eta abenduaren 19an jendaurrean aurkeztuko du egindako lana. Duhartek egonaldian zehar egindako hainbat pieza erakutsiko ditu eta bere esperientzia zer nolakoa izan den azalduko die bertaratuei. Bestalde, Unai Sorarrain bideogileak artistaren lana ikus-entzunezko batean jaso du eta bideoa ekitaldian proiektatuko da.

SORMENAREN KABIA 2025, EMAITZEN AURKEZPENA

NOIZ: abenduak 19, ostirala

NON: udaletxeko Ganbaran

ORDUTEGIA: 19:00-19:30

